

IRAGARKIA

123. ALDIZKARIA - 2024ko ekainaren 14a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

ANTSOAIN

Aldaketa, Eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen udal ordenantzan. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2024ko martxoaren 26an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen aldaketa egitea Eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen udal ordenantzan.

Espedientea jendaurrean egon zen 30 egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita (2024ko 76. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, apirilaren 16koa), interes legitimoa dutenek azter zezaten, eta egoki jotako erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez zitzaten, jarritako epearen barnean; hori guztia, bat etorriz uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ez denez, zilegi da Eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen udal ordenantzan egindako aldaketa argitaratzea.

Antsoainen, 2024ko ekainaren 31n.-Alkatea, Marta Díez Napal.

ERAIKINAK BIRGAITZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

Udalak eta Nafarroako Lurzorua eta Etxebizitzak SA (Nasuvinsa) enpresa publikoak 2018ko azaroaren 2an sinatutako hitzarmenaren eremuan sartzen da ordenantza hau. Hitzarmen horren bidez babestu nahi dira hiri-berroneratze prozesuak, LIFE-IP NAdapta-CC europar proiektuaren 6.8-Energia berroneratzeko eta hiri-inguruneak klima-aldaketara egokitzeko ekintza pilotuaren garapenean.

Hitzarmen horretan, Antsoaingo Udalak bere gain hartu zuen konpromisoa aztertzeko erkidegoko obren (inguratzaile termikoak jartzekoak kasu) kostuetarako ekarpena murriztera bideratutako laguntzen ordenantza bat ezartzeko aukera zaurgarritasun ekonomikoko egoeran daudenenentzat.

Era berean, Antsoaingo 20-30 Agendaren Tokiko Ekintza-Planaren ildo estrategikoetako bat 10. ildoa da: klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka borrokatzeko neurriak hartzea, eraikitako hiria birgaitzea eta berritzea sustatuz, berroneratze energetikoan lagunduz, bizilagunen bizi-kalitatea hobetuz eta pobrezia energetikoaren kasuak minimizatuz.

Ordenantza honen helburua da erraztea erabakiak hartzea esku-hartze orokorreko plan (EOP) baten esparruan sartuta dauden eta bizitegieraikinen eta haien instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak egin nahi dituzten jabeen erkidegoen barruan, eta, horretarako,
esku-hartze orokorreko plan baten (EOP) esparruan egoera ekonomiko zaurgarrienean dauden auzotarrek ordaindu beharreko kuotaren zati
handi bat finantzatzea.

Bertan definitzen dira ekonomikoki zaurgarriak diren pertsonen eta pertsona zaurgarri larrien figurak, Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunari (ERREGEROSNA) loturiko errenta-muga jakin batzuei dagokienez, bizikidetza-unitateko kide kopuruaren arabera eta erreferentziatzat hartzen diren inguruabar berezi jakin batzuen arabera.

Horrenbestez, eraikitako hiria berroneratzea eta birgaitzea dira helburuak, Antsoaingo hiri-ingurunean pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko.

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Antsoaingo Udalak ematen dituen laguntzen araubide juridikoa erregulatzea. Laguntzak bideratuak daude hiriberroneratzerako jarduketak sustatzera, bizilagunen bizi-kalitatea hobetzearren eta pobrezia energetikoaren kasu kopurua murriztearren, betiere proiektu honen barnean:

- -Etxebizitzen energia-efizientzia eta jasangarritasuna.
- -Irisgarritasuna eta segurtasuna, erabiltzeko orduan.

Ordenantza honen laguntzek honako hauetan jasotakoari jarraituko diote: ordenantza bera, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena) eta aplikatzekoak diren administrazio zuzenbideko gainerako arauak.

2. artikulua. Esparrua.

Laguntzak 3. artikuluan adierazitako obra-motetako batean sartzen diren etxebizitza kolektiboko jarduketei aplikatuko zaizkie, udal-ekimen bidez edo ekimen pribatu bidez sustatutako esku-hartze orokorreko proiektu batean sartuta dauden eta 25 urte edo gehiagoko bizigarritasun-zedula bat duten jabeen erkidegoen, etxebizitza-elkarteen edo kooperatiben ekimenez, bai eta sistema zentralizatuak berritzeko jarduketei ere, baldin eta horiek egiten badira espazio publikoari eragiten dioten eta eraikin bati baino gehiagori zerbitzu egiten dioten bero-sareei dagozkien sistema zentralizatuetan.

3. artikulua. Gastu diruz lagungarriak.

Jarduketa babesgarriek egiaztatu beharko dute betetzen dutela indarrean dagoen araudia eta badutela babes kalifikazioa, Nafarroako Gobernuak emana.

Hala behar denean, esku-hartze orokorreko proiektuan (EOP) ezarritako jarraibide teknikoak eta konposiziozkoak jasoko dituzte, onetsitako bat baldin badago.

Edozein kasutan ere, birgaitze obrak egitean, bermatu behar da obra horiek teknika eta eraikuntza aldetik bat egiten dutela eraikinaren egoerarekin eta egin litezkeen gainerako obrekin. Hortaz, eraikinak egitura eta eraikuntza aldetik segurtasunik ez badu, ezta argindar hornidurarik edo ur banaketarik ere, edo saneamendu orokorra modu egokian ez badabil, eta behar bezalako estankotasunik ez badu euriari aurre egiteko, obrak ez dira lagunduko haiekin batera gabezia horiek konpontzeko behar diren obrak egiten ez badira.

Ordenantza honek aurreikusitako ondorioetarako, gastu diruz lagungarriak dira inolako zalantzarik gabe eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko direnak, jarduketa hauek, alegia:

- 3.1. Etxebizitzen energia-efizientzia eta jasangarritasuna.
- a) Eraikineko inguratzaile termikoaren hobekuntza, berotzeko edo hozteko behar den energia murriztearren, fatxadan, estalkian, babestu gabeko beheko solairuetan edo aipatu inguratzailearen edozein paramentutan; isolamendu termikoaren hobekuntzak; zureria aldatzea eta hutsarteetan beirak jartzea.

- b) Sistema zentralizatu berriak jartzea edo berritzea berokuntzarako, hozketarako, etxeko ur beroa sortzeko eta egokitzapen termikoaren aireztatzerako, edo egungo sistemen energia-efizientzia handitzeko jarduketak, hala nola beroa edo hotza sortzeko ekipoak aldatzea.
- c) Energia berriztagarriak (eguzki-energia, fotovoltaikoa, biomasa, aerotermia, geotermia) sortzeko edo horiek erabiltzeko ekipoak jartzea, energia termiko edo elektriko konbentzionalaren kontsumoa murriztearren.
- 3.2. Irisgarritasuna eta segurtasuna, erabiltzeko orduan.

Energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektu batean sartzen badira, honako jarduketa hauek lagunduko dira diruz:

a) Irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona ororentzako diseinurako jarduketak, oztopoak kentzeko asmoa badute, desgaitasuna duten pertsonak eraikinaren eremu komunetan sar daitezen, bide publikotik etxebizitzetaraino, eta eremu horiek erabil ditzaten.

Horiekin batera egiten diren bestelako obrak ez dira diruz lagunduko, ez badira ordenantza honetan azaldutako helburuak zuzen lortzekoak. Eraikinetako konponketa puntualak edo mantentze-laneko jarduketak ere ez dira lagunduko, ez badute hobekuntzarik ekartzen energia-efizientzian edo irisgarritasunean.

4. artikulua. Eraikinen / etxebizitzen gutxieneko baldintzak.

Orokorrean, honako baldintza hauek bete behar dituzte higiezinek Udalaren laguntzak jaso ahal izateko:

- a) Eraikineko etxebizitzek gutxienez 25 urteko edo lehenagoko bizigarritasun-zedula bat izatea.
- b) Jarduketa-eremurako hirigintzako planeamenduan edo hori garatzen duen araudian ezarritakora egokitzea. "Antolamendutik kanpoko" eraikinetan egin beharreko obrek ezin izanen dituzte birgaitzerako udal laguntzak jaso.
- c) Eraikinaren ebaluazio txostena edukitzea. Txosten horretan, laguntzen xede den birgaitze-proiektuaren bidez konponduko diren akatsak identifikatu beharko dira. Jarduketak jaso beharko du eraikinaren ebaluazio txostenean zehaztutako obrak, eraikina Gai izan dadin.
- 5. artikulua. Dirulaguntzak kalkulatzeko oinarria.

Laguntzak kalkulatzeko, honako hau hartuko da oinarri gisa: Nafarroako Gobernuaren birgaitze babestuaren Kalifikazioaren espedientean dagoen aurrekontu diruz lagungarria.

Bestalde, Nafarroako Gobernuko laguntzen espedienterik ez duten jarduketetarako (adibidez, erabilera publikoko espazio pribatuak berrurbanizatzeko jarduketetan), honako kontzeptu hauen batura hartuko da laguntzak kalkulatzeko aplikazio-oinarritzat:

Kontrataren aurrekontua: obra gauzatzeko aurrekontutik kenduko dira obra babesgarri izan ezin diren partidak, eta gehituko dira gastu orokorrak eta mozkin industriala (bi horiek batera gehienez ere obra gauzatzeko aurrekontuaren %15 izateraino).

-Ordainsari profesionalak, gehienez ere kontzeptu horiengatik dirulaguntza jaso dezakeen kontrataren aurrekontu babestuaren %10eko zenbatekoarekin, honako hauek barne hartuta: EOPa idaztea, proiektu teknikoa idaztea, obren zuzendaritza fakultatiboa, eraikinaren ebaluaziotxostena, betiere laguntzen eskaera txosten horren datatik zenbatzen hasita lehenengo bost urteetan egiten bada, eta kudeaketa-gastuak (finken administrazioa), jarduketari buruzkoak soilik.

Balio erantsiaren gaineko zergaren edo eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindu beharreko zenbatekoak ez dira inola ere sartuko birgaitze jarduketen aurrekontu babesgarriaren barnean.

6. artikulua. Zaurgarritasun egoeran daudenentzako laguntzak.

Pertsona bat zaurgarritasun-egoeretarako ezohiko laguntzen onuradun izan dadin, bere etxebizitzak ordenantza honetan jasotako jarduketaren batean parte hartu behar du.

Onuraduna zaurgarritasun egoeran edo egoera zaurgarri larrian dago etxebizitzan bizi den bizikidetza-unitatearen familiaren diru-sarrera haztatuak ordenantza honen 8. artikuluan ezarritako mugen barruan daudenean.

Jarraian ematen den taulan ezartzen dira zaurgarritasun egoeretarako laguntza berezietako gehieneko ehunekoa eta zenbatekoa:

Ikus taula osoa

ESKU-HARTZE OROKORREKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA	
LAGUNTZA BEREZIAK, ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDENENTZAKO	
JARDUKETA MOTA	FAMILIA-UNITATEAREN EDO

		BIZIKIDETZA-UNITATEAREN DIRU-SARRERAK	
		< 1 aldiz Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA)	1 eta 1,7 arteko ERREGEROSNA
ETXEBIZITZEN ENERGIA-EFIZIENTZIA ETA JASANGARRITASUNA	a) Inguratzaile termikoa hobetzea	%40 Gehien.: 5.000 euro	%20 Gehien.: 2.500 euro
	 b) Energia-efizientziako instalazioak hobetzea edo jartzea c) Energia berriztagarriak sortzeko edo erabiltzeko aukera ematen duten ekipoak instalatzea. d) Eraikineko edo lurzatiko instalazio komunen energia-efizientzia hobetzea. 	%40 Gehien.: 2.800 euro	%20 Gehien.: 1.800 euro
IRISGARRITASUNA ETA SEGURTASUNA, ERABILTZEKO ORDUAN	Irisgarritasun unibertsala eta pertsona ororentzako diseinua	%40 Gehien.: 5.000 euro	%20 Gehien.: 2.500 euro

^{7.} artikulua. Zaurgarritasun egoeretarako laguntzen onuradunak.

1. Zaurgarritasun egoeretarako laguntzen onuraduntzat joko dira, laguntza orokorren osagarri gisa, jabeak zein gozamendunak, jabeen erkidego bateko kide direnak, eta jarraian ematen diren oinarrizko baldintzak betetzen dituztenak laguntza eskatzen den egunean:

- -Etxebizitza horretan erroldaturik egotea, 3 hilabete lehenagotik.
- –Zaharberritu beharreko eraikinean dagoen etxebizitzaren jabetza edo gozamena edukitzea eta etxebizitza horretan ohiko bizilekua izatea gutxienez 5 urtez, Udalak laguntza emateko behin betiko erabakia hartzen duen egunetik zenbatzen hasita. Onuraduna hiltzea baldintza hori betetzetik salbuesteko arrazoia izanen da. Kasu horretan, jaraunsleek etxebizitzaren jabetza eskualdatzen badute edo etxebizitza alokatzen badute, Udalari itzuli beharko diote laguntzaren zenbateko osoa eta, orobat, dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko dituzte.
- -Eskatzailearen familia-unitatearen familiaren diru-sarrera haztatuak (errenta egokiagatiko erosahalmen nahikotasunaren adierazlea) zortzigarren artikuluan jasotako tarteen barruan egotea.
- -Laguntza eskatzea Nafarroako Gobernuaren birgaitze babestuaren behin betiko kalifikazioa eman aurretik. Horretarako, dagozkion frogagiri guztiak aurkeztu beharko ditu.
- -Udalari berariazko baimena ematea laguntza ordain dezan jabeen erkidegoaren banku-kontuan.
- 8. artikulua. Laguntza ekonomikoak.

Dirulaguntza indibidualak izanen dira, Nafarroako Gobernuaren birgaitze babestuaren Kalifikazioan onartutako Aurrekontu diruz lagungarrian parte hartzeko laguntzaren ehunekoa aplikatuz, eta kontuan hartuz eskatzailearen familia-unitatearen familiaren diru-sarrera haztatuak (FDH), errenta egokituagatiko erosahalmen nahikotasunaren adierazleari (ERREGEROSNA) erreferentzia egiten dioten errenta-atalase jakin batzuk.

FDHaren kalkulua eginen da jarraikiz laguntza eskatzeko unean indarrean dagoen araudiari, eta aplikatuko da eskaera egiteko unean indarrean dagoen koadroa.

Onuradunak 5.000,00 euro jasotzen ahalko ditu gehienez inguratzaile energetikoa eta irisgarritasuna hobetzeko, eta 2.800,00 euro gehienez, hobetzeko edo jartzeko energetikoki efizienteak diren instalazioak eta ordenantza honen 6. artikuluan ezarritako koadroan jasotako gainerako kasuetarako.

Nolanahi ere, jarduketa sustatzen duen erakundeak jasoko ditu zaurgarritasun egoeretarako laguntzak; izan ere, jabeen erkidego bat, kooperatiba bat edo etxebizitza-elkarte bat izan daiteke, baina dirulaguntza jasotzen duen jabe edo gozamendun eskatzaileari esleitutako obraren kostua murriztera bideratuta egonen dira. Laguntza ematen bada, interesdunari eta erakundeari jakinaraziko zaie, aldi berean.

9. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

- 1. Pertsona onuradunen betebehar orokorrak dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. kapituluaren 14. artikuluan ezarritakoak.
- 2. Erkidegoaren edo batasunaren ordezkari edo ahalordedun bakar bat izendatu beharko da, batasunari onuradun gisa dagozkion zereginak betetzeko adinako ahalen jabe. Batasuna ezin izanen da desegin harik eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 35. eta 65. artikuluetan ezarritako preskripzio-epea iragan arte.

Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen batasunen kasuan, publikoak edo pribatuak izan, espresuki adieraziko dira, bai laguntzaren eskabidean bai emateko ebazpenean, batasuneko kide bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromisoak, baita haietako bakoitzari aplikatzekoa zaion dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira.

3. Gastu diruz lagungarriak gainditzen baditu Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak kontratu txikietarako ezartzen dituen zenbatekoak, emandako laguntza jasotzen duen jabeen erkidegoak egiaztatu beharko du hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu direla obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago obra, prestazio edo hornikuntza hori egiten duten hornikuntza erakundeen kopuru nahikorik.

Aurkeztutako eskaintzak agertu behar dira justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran. Efizientzia eta ekonomia irizpideei jarraituko zaie haien artean aukeratzeko, eta, proposamenik onuragarriena ez bada hautatzen, espresuki justifikatu beharko da.

- 10. artikulua. Espedienteak izapidetzea eta ebaztea.
- 10.1. Aurretiazko jarduketak.

Orokorrean, interesdunek beharrezko informazioa jasotzeko, horretarako gaituta dagoen udal bulegora jo beharko dute.

Ikuskapena egin ondotik, halakorik beharrezkoa bada, bulego horrek argibideak emanen dizkie interesdunei alderdi hauen gainean:

- -Zer obra egin behar diren.
- -Kasu bakoitzean behar den dokumentu teknikoa.
- -Ordenantza honen babespean eta honi dagokionez eman daitezkeen laguntzak adieraztea, Nafarroako Gobernuaren edo beste erakunde batzuen bitartez oro har legozkiokeen laguntzak alde batera utzita.

- 10.2. Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak. Interesdunek dagozkien agiriak aurkeztuko dituzte horretarako gaitua dagoen bulegoan. Bulego horrek, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak birgaitzearen behin-behineko kalifikazioa izapidetzeko eskatutako dokumentazioaz gain (egokitasun-txostena edo indarrean dagoen araudia betetzearen justifikazio nahikoa), honako hauek jasoko ditu, oro har:
- 1. Ezohiko laguntza eskatzeko inprimakia, ordenantza honen 1. eranskinaren araberakoa, honako hauek egiaztatzeko agiriekin batera:
- a) Obra-lizentziaren eskabidea edo obra-lizentziaren kopia, ordenantza hau indarrean sartu baino lehenago emana bada. Edozein kasutan ere, ordenantza honetan jasotako betekizunak bete behar dituzte obrek, eta jarduketa diruz lagungarria ezin da hasi laguntzak eskatzen diren eguna baino lehen.
- b) Jabeen erkidegoaren ziurtagiria, jabeen erkidegoaren barruko partaidetza-koefizientea jasotzen duena, banaketa horizontalaren eta bakoitzari esleitutako obraren kostuaren arabera.
- c) Jabeen batzarraren edo entitate kudeatzailearen erabaki baliozkoa, bertan espresuki adierazita obrak egiteko konpromisoa hartzen dutela.
- d) Proiektuan edo memorian jasotako obrak kontratatzeko hiru aurrekonturen kopia –bakoitza enpresa batena– edo hiru eskaintza/aurrekontu eskatzeko konpromisoa, gastu lagungarria 40.000 euro baino gehiagokoa bada. Eskaintzarik onena hautatzeko jabeen erkidegoak onetsitako balorazio irizpideak azaldu behar dira (prezioa, epea eta abar).

Dagoeneko eraikuntza enpresa hautatu baldin badute, hori erabakitzeko arrazoiak eta horretarako erabilitako irizpideak agertu behar dituzte txosten batean.

- e) Banketxearen frogagiria, bertan azalduta jabeen erkidegoaren izenean dagoen kontu zenbakia, dirulaguntza sartzeko.
- f) Birgaitze babestuaren behin behineko kalifikazioa, Nafarroako Gobernuak emana.
- Jabeen erkidego bateko kide izanik, zaurgarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak eskatzen dituzten jabe edo gozamendunek aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez:
- 2. Zaurgarritasun egoeran daudenentzako laguntza berezia ordaintzeko eskabidea, ordenantza honen 2. eranskinaren arabera. Frogagiriak erantsi behar dira honako hauen inguruan:
- a) Birgaitu beharreko higiezinaren/higiezinen jabetzaren, gozamenaren eta eskubide errealen egiaztapena, Jabetza Erregistroko informazio-ohar sinple eguneratuaren bidez.

- b) Errolda-ziurtagiria.
- c) Familia-unitatearen edo bizikidetza-unitatearen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZa) aitorpena(k), eskaera egiten den egunean indarrean dagoena.
- d) Inguruabar bereziak frogatzen dituen dokumentazioa edo ziurtagiria, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak emana, edo beste edozein administrazio eskudunek.
- 10.3. Ebazpena eta ebazteko eskumena.

Udalak berariazko ebazpena eman baino lehen, eskabideei buruzko txostena eginen da, eta erabaki hori obra-lizentzia emateko administrazioegintzarekin bat etor daiteke. Hala ere, laguntza horiek ordaintzeko, beharrezkoa izanen da udal espedientea behin betiko ebatzita egotea, obrak egin direla justifikatu ondoren.

Era berean, obretarako udal lizentzia duten proiektuei laguntzak ematen ahalko zaizkie.

Udalaren aurrekontuan baliabide ekonomikoak nahikoak izan behar dira, eman ahal izateko behar den ekitaldi ekonomikoaren kargurako laguntzak. Aurkezpenaren ekitaldian aurrekontu ahalmenik ez badago, hurrengo ekitaldietan erantzunen zaie.

Oro har, eta ordenantza honetan bereziki jasota ez dauden eta tramitazioan gerta daitezkeen inguruabar berezietan, Nafarroako Gobernuaren irizpenari jarraituko zaio, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei buruzko dekretua aplikatzeari buruzko irizpenari, hain zuzen.

Ordenantza honen aplikazioari dagokion guztian, ordenantza justifikatzen duten helburuak lortzeko ordenantza normaltasunez betetzen dela zainduko du udal organo eskudunak.

- 11. artikulua. Laguntza ekonomikoak ordaintzeko modua eta epeak.
- 1. Ezin izanen dira gorantz berrikusi Udalak ematen duen laguntzaren ebazpen espresuan baietsitako laguntzen zenbatekoa eta ehunekoa.

Obren azken kostuaren justifikazioa eta/edo Nafarroako Gobernuak emandako birgaitze babestuaren behin betiko kalifikazioa txikiagoa bada hasieran onetsitako espedientearen diruz laguntzeko moduko aurrekontua baino, beheranzko berrikuspena eginen da.

2. Babespeko obrak behar bezala bukatu ondoren emanen da laguntza ekonomikoa, eta horretarako udal espedientean jaso beharko dira bai Nafarroako Gobernuaren birgaitze babestuaren behin betiko kalifikazio zedularen kopia, bai udal zerbitzuak edo pareko zerbitzu eskudunak emandako azken txostena.

- 3. Onuradunak justifikatu beharko du lagundu den jarduketa egin egin dela, hura ordaindu baino lehen, horretarako baldintza izanen baita. Horretarako, honako hauek aurkeztu behar ditu:
- -Obra amaierako ziurtagiria, dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia.
- -Birgaitze babestuaren behin betiko kalifikazioaren zedula, Nafarroako Gobernuak emana.
- -Obren bukaerako kostua frogatzen duten agiriak eta/edo gastua ziurtatzen duten fakturak.
- –Jabeen erkidegoaren frogagiria, bertan azalduta jabeen erkidegoa osatzen duten partaidetza-koefizienteak, banaketa horizontalaren araberakoak. Egindako gastuak eta lortutako diru-sarrerak zerrendatuko dira, modu antolatuan eta kontzeptuka sailkatuta.
- 4. Jarduketak, laguntza hauetaz gain, bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin finantzatu direnean, justifikazioan diru horien zenbatekoa eta jatorria frogatu beharko dira eta, orobat, funtsak diruz lagundutako jarduketari aplikatu zaizkiola.
- 5. Kalifikazioaren elementu eta oinarri gisa aurkeztutako proiektu teknikoaren alderdi guztiak errespetatu beharko dira egin beharreko obrak gauzatzean, eta, beraz, ezin izanen da aldaketarik egin (bereziki, arkitekturaren, materialen edo egin beharreko tratamenduen kalitateari eragiten diotenean), zerbitzu teknikoen aldez aurreko baimenik gabe.
- 6. Udaleko zerbitzu teknikoek lizentziaren gaineko aurrekariak eta espedientean jasotako dokumentazioa aztertuta, obrak ikuskatuko dituzte, dirulaguntzaren xedeari egokitzen zaizkion eta obra lizentziaren arabera egin diren egiaztatu beharrez, bai eta eskatutako dokumentazioa behar bezala aurkeztu den egiaztatzeko ere.
- 7. Udal zerbitzu teknikoei dagokie nahitaezko txosten teknikoa idaztea, obrak amaitu ondoren, udalak, horiek egoki badira, espedientean jasota dauden gainerako laguntzak likida ditzan, bai eta espedientearekin zerikusia duten alderdi guztien jarraipena eta kudeaketa egitea ere, hasieratik amaitu arte, onuradunek dirulaguntzak erabat eraginkorrak izanen direla bermatzeko.
- 8. Edozein kasutan ere, laguntzak ematen dituen organoak eska dezakeen beste edozein dokumentazio aurkeztu behar da, egindako jarduketak justifikatzeko.
- 9. Laguntza jaso eta gero ezin izanen da berriro eskatu ordenantza honetan jasotako laguntza bost urteko epean, birgaitzea bereziki konplexua den eraikinen kasuan izan ezik. Kasu horretan, faseka birgaitzea onartzen ahalko da, eta laguntzak fase bakoitzerako emanen dira, betiere udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena ematen badute eta udal organo eskudunak onartzen badu.
- 12. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna.

- 1. Ordenantza honetan laguntza mota bakoitzerako ezarritako irizpideen aplikazioak ezarriko du Udalaren laguntza ekonomikoen muga.
- 2. Udalaren laguntzak Nafarroako Gobernuak horretarako ezarrita dituenen osagarri izanen dira, baita espedientean helburu bererako izaten den beste edozein laguntzaren osagarri ere.
- 3. Dirulaguntzen zenbatekoa ez da inoiz handiagoa izanen diruz lagundutako jardueraren kostua baino, ez berez, ez hari gehituta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabide batzuk, edozein administrazio, erakunde edo pertsonarengandik datozela ere.
- 4. Proiektu edo jardueraren kostuaren aldean, erakunde publikoetatik hartutako dirulaguntzak sobera direnean, nahiz bateragarriak izan, onuradunak soberakina eta berandutzaren interesak itzuli beharko ditu, frogagiriari ordainketa-gutunak gehituta. Laguntza ematen duten erakundeei itzuliko zaie gehiegizko zenbatekoa; zenbat eman duen bakoitzak, haren proportzioan.

Hala ere, Administrazioa ohartzen bada gehiegizko finantzaketa horretaz, gehiegizko zenbatekoa osorik itzultzeko exijituko du, hark emandako dirulaguntzaren mugaraino.

13. artikulua. Laguntzen publizitatea.

Antsoaingo Udalak zehazten ahalko ditu hedatzeari buruzko neurriak, diruz lagundutako helburuaren arabera hartu eta egokitu behar direnak, forman zein iraupenean. Izan liteke Udalaren irudi instituzionala sartzea eta finantzaketa publikoari buruzko aipamenak egitea kartel, plaka oroigarri, inprimatutako material, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan egiten diren aipuetan.

Jarduketak beste finantza-iturri batzuk izan eta onuraduna inguruabar hori jakinaraztera behartua denean, Udalaren dirulaguntzaren berri emateko bideak eta haiei eman beharreko garrantzia beste finantza-iturri horietarako erabilitakoen berdintsuak izan behar dira.

14. artikulua. Laguntzen xedea.

Laguntzen onuradunek dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dituzte ondasunak, gutxienez bost urtez.

Xedearekiko betebehar horri huts eginez gero, hala gertatuko baita betiere ondasuna besterentzen edo kargatzen denean, laguntza itzuli egin beharko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan ezarritako moduan; ondasuna itzulketari atxikiko zaio, zein den ere jabea, non ez den hirugarren bat, erregistroko fede publikoak babestua, edo ondasunak fede onez eta titulu zuzenez eskuratu direla justifikatzen bada.

Xedearekiko betebehar hori ez da huts egintzat joko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.5 artikuluan jasotako kasuetan, ez eta Nafarroako Gobernuak bere araudian jasotako kasuetan eta tokiko gobernu batzarrak onetsitako kasu berezietan ere.

- 15. artikulua. Laguntzak galtzea eta/edo itzultzea.
- 1. Ordenantza honetako baldintzak eta beharkizunak betetzen ez badira, edo aurkeztutako dokumentazioan edozein datu faltsutzen bada, Udalak emandako laguntza guztiak deuseztatuko dira eta espedientean izan daitezkeen onurak bertan behera geldituko; gainera, jasotakoa itzuli beharko da, legezko interesak barne, jaso ziren unetik. Indarra duen legerian diru-bilketarako ezarritako premiamendu bidez ordainaraz daitezke, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta dirulaguntza eta laguntza publikoei aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan jasotako arrazoietako bat gertatzen bada.
- 2. Jabeen erkidegoen kasuan, deuseztapen hori banaka egin daiteke, erkidegoko kideetatik bat bakarra bada betetzekoari huts egiten diona, edo taldeka, erkidegoari berari egozten ahal baldin bazaio.
- 16. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak dira azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean tipifikatutako egiteak eta ez-egiteak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra), eta horiek zehatuko dira jarraikiz aipatutako legean eta hura garatzeko araudian ezarritako prozedurari.

17. artikulua. Indarraldia.

Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta mugagabeko iraunaldia izanen du.

1. ERANSKINA.-HIRIA BERRONERATZEKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

iaunak/androak (IE7:

	jaurian ariurean (ii 2),
	jabeen erkidegoko lehendakaria/administratzailea den aldetik (IFK:
Helbidea:), hau adierazten du:
labeen erkidegoa prest dago eraikina biro nonako hauek aurkeztu ditu:	gaitzeko obrak egiteko, eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen ordenantzaren arabera, eta
☐ Obra-lizentziaren edo horren eskabidea	iren kopia.
□ Jabeen erkidegoaren ziurtagiria, jabeer esleitutako obraren kostuaren arabera.	n erkidegoaren barruko partaidetza-koefizientea jasotzen duena, banaketa horizontalaren eta bakoitzar

□ Jabeen erkidegoaren edo erakunde sustatzailearen baliozko erabakia, obrak egiteko.
–Erkidegoak obrak kontratatzeko hiru eskaintza/aurrekontu aurkezten ditu edo eskatzeko konpromisoa hartzen du, eta efizientzia- eta ekonomia- irizpideen arabera hautatuko dira.
□ Aurkeztutako hiru eskaintzen kopia eta hautaketaren justifikazio memoria.
–Baimena ematen dio Antsoaingo Udalari jabeen erkidegoaren banku-kontuan dagozkion laguntzak ordain ditzan:
Kontuaren titularra:
Kontuaren zenbakia:
□ Banku-erakundearen ziurtagiria.
Eguna eta sinadura:
IFZ:
2. ERANSKINA.–HIRIA BERRONERATZEKO LAGUNTZAK ORDAINTZEKO ESKABIDEA
lzena:, IFZ:, kaleko kaleko solairuan dagoen etxebizitzaren jabe gisa, Eraikinak birgaitzeko laguntzak
arautzen dituen ordenantzan jasotako zaurgarritasun egoeretarako laguntza bereziaren onuradun naizen aldetik, honako hau adierazten dut: –Diruz lagungarria den jarduketaren xedeko etxebizitzaz aparte, ez naizela beste etxebizitza baten jabariaren edo haren erabileraren edo gozamenaren eskubide erreal baten titularra %100ean.
–Antsoainen erroldatuta nagoela.
□ Errolda-ziurtagiria.
–Ez dudala jasotzen PFEZn aitortutakoez eta aitortutako errenta salbuetsiez bestelako diru-sarrerarik.

□ PFEZren azkeneko aitorpena.
–Bizikidetza-unitateak gutxienez adingabeko bat duela bere ardurapean, eta honako hauek aurkezten ditudala:
□ Familia liburuaren kopia eta, hala badagokio, familia ugariaren txartela.
–Familia-unitatean inguruabar bereziren bat gertatzen dela:
□ Bonu soziala eskatzeko inguruabar berezien ziurtagiria, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak emana.
□ Bestelako frogagiriak.
–Antsoaingo Udalari baimena ematen diodala behean sinatzen duenari ordaintzeko dagokion laguntza jabeen erkidegoaren banku-kontu honetan:
Kontuaren titularra:
Kontuaren zenbakia:
Eguna eta sinadura:
IFZ:

3. ERANSKINA.-AGIRIAK

1.-Jabeen erkidegoak egin beharreko obren egiaztagiriak.

- a) Obra lizentziaren eskaeraren inprimakia.
- b) Jabeen erkidegoaren ziurtagiria, jabeen erkidegoaren barruko partaidetza-koefizientea jasotzen duena, banaketa horizontalaren eta bakoitzari esleitutako obraren kostuaren arabera.
- c) Jabeen batzarraren edo entitate kudeatzailearen erabaki baliozkoa, bertan espresuki adierazita obrak egiteko konpromisoa hartzen dutela.

d) Projektuan edo memorian jasotako obrak kontratatzeko hiru aurrekonturen kopia –bakoitza enpresa batena– edo hiru eskaintza/aurrekontu eskatzeko konpromisoa, gastu lagungarria 40.000 euro baino gehiagokoa bada. Eskaintzarik onena hautatzeko jabeen erkidegoak onetsitako

balorazio irizpideak azaldu behar dira (prezioa, epea eta abar).

Eraikuntza-enpresa esleituta badute, hautaketarako erabilitako irizpideak jasotzen dituen txostena erantsi beharko dute.

e) Banketxearen frogagiria, bertan azalduta jabeen erkidegoaren izenean dagoen kontu zenbakia, dirulaguntza sartzeko.

2.-Eskatzailearen zaurgarritasun egoeraren egiaztagiriak.

a) Birgaitu beharreko higiezinaren/higiezinen jabetzaren, gozamenaren eta eskubide errealen egiaztapena, Jabetza Erregistroko informazio-ohar

sinple eguneratuaren bidez.

b) Errolda-ziurtagiria edo bizileku-aldaketaren ezohiko inguruabarren egiaztagiriak.

c) Familia-unitatearen edo bizikidetza-unitatearen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZa) aitorpena(k), eskaera egiten den

egunean indarrean dagoena.

Eta, familia-unitatean gertatzen bada ordenantza honen 8. artikuluko eta eranskineko zaurgarritasun egoerak sailkatzeko taulan azaldutako

inguruabar bereziren bat, honako hau aurkeztu behar da:

d) Inguruabar berezi horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa edo ziurtagiria.

e) Inguruabar berezien ziurtagiria, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak edo beste edozein administrazio eskudunek

emana.

f) Birgaitze babestuaren behin behineko kalifikazioa, Nafarroako Gobernuak emana.

Iragarkiaren kodea: L2408961